

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua:

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1352/2008/EE ERABAKIA,
2008ko abenduaren 16koa, Kultura programa (2007-2013) ezartzen duen 1855/2006/EE Erabakia
aldatzen duena

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DECISIÓN No 1352/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 que modifica la Decisión no 1855/2006/CE por la que se establece el programa Cultura (2007-2013)*» (EBren Egunkari Ofiziala, L 348/128 2008/12/24koa)

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1352/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa, Kultura programa (2007-2013) ezartzen duen 1855/2006/EE Erabakia aldatzen duena
(Testu egokia EEEri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 151. artikuluko, 5. paragrafoko lehen gidoia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin diote,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin diote,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedura bete dute ⁽¹⁾,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1855/2006/EE Erabakiak ⁽²⁾ Kultura programa ezarri zuen 2007-2013 aldirako.

(2) 1855/2006/EE Erabakiko 8. artikuluko 3. paragrafoan ezartzen da programaren exekuziorako 2. paragrafoan aipatzen ez diren neurriak Erabaki horretako 9. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera onartuko direla; hau da, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakian ⁽³⁾ ezarritako kontsulta-prozeduraren arabera. 1999/468/EE Erabakian, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenak nola bete behar diren ezartzen da.

(3) 1855/2006/EE Erabakiaren idazketa horrek, zehazki, zera dakar: 8. artikuluko 2. paragrafoan agertzen ez diren hautatzeko erabakiak Europako Parlamentuaren kontsulta-prozeduren eta kontrol-eskubideen mende daudela.

(4) Hala eta guztiz ere, hautatzeko erabaki horiek, nagusiki, honelako proiektuak dituzte helburu: iraupen mugatuko proiektuak, erabakitze-prozedura luzeekin bateragarriak ez diren bizi-zikloa dutenak eta politikoki sentikorrek diren erabakiak hartzea eskatzen ez dutenak.

(5) Prozedurazko betekizun horiek hautagaien diru-laguntzen esleipen-prozesua bizpahiru hilabete luzatzea dakarte. Onuradunei atzerapen ugari eragiten dizkiete, programaren administrazioan neurritz kanpoko karga eragiten dute, eta ez dute balio erantsi bat ematen aitortuko diru-laguntzen ezaugarriak kontuan hartuta.

(6) Hautatzeko erabakiak azkarrago eta eraginkorrago egiteko, beharrezkoa da kontsulta-prozedura ordezkatzeta. Horren lekuan, Batzordeak 1855/2006/EE Erabakia betetzeko hartutako neurri guztiak atzerapenik gabe jakinarazi beharko dizkie Europako Parlamentuari eta estatu kideei. HAU ERABAKI DUTE:

1. artikulua

1855/2006/EE Erabakia aldatu, eta honela geratu da:

1) 8. artikuluan, 3. paragrafoa aldatu eta honela utzi da:

«3. Batzordeak 9. artikuluan aipatutako Komiteari eta Europako Parlamentuari Erabaki hau betearazteko hartzen dituen gainerako erabakien berri emango die, erabakiak hartu eta bi laneguneko epean. Informazio

¹ Europako Parlamentuaren irizpena, 2008ko irailaren 2koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko azaroaren 20koa.

² C 372 EO, 2006.12.27koa, 1. or.

³ C 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

horren barruan, hau adieraziko da: jasotako eskaeren deskribapena eta azterketa, ebaluazio- eta aukeraketa-prozeduraren deskribapena, eta haren finantzaziorako proposatutako proiektuen eta baztertutako proiektuen zerrendak».

2) 9. artikuluan 3. paragrafoa kendu da.

2. artikulua

Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari erabaki honen berri emango die, 2010eko ekainaren 25a baino lehen.

3. artikulua

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

Europako Parlamentuaren izenean, Presidentea H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, Presidentea B. LE MAIRE